



Prentsa Oharra

Laudioko EAJ-PNV-k, behin eta berriz aurrekontu akordioa betetzen ez dela ikusita, EH Bilduren eraginkortasun eza, ekintza falta eta gestio gaitasun falta salatu ditu

- **Bildu eta talde jeltzalearen artean adostutako akordioari esker aurrera atera diren inbertsioen %28 bakarrik egi bihurtu dira.**
- **Gobernu taldearen axolagabekeriak, iragan urtean aurrekontu sailean itundutako inbertsioen %6 soilik egikaritzea lortu du.**
- **Hamaika dira, udal talde jeltzaleak lanean jarraitzeko beharraz ohartzeko plazaratutako aldiak. Eta berriz ere gogora ekarri nahi du, gutxiengoan egonda, akordioak lotzea ezinbestekoa dela, baina adostutakoa betetzea are garrantzitsuagoa da, ez bakarrik Udalaren gobernagarritasuna bermatze aldera, baita Laudiok merezi duen tarte berreskuratzeko ere.**
- **Konfiantza eza, berme gabezia eta aurrekontu akordioa ez betetzeak, etorkizunerako konpromisoa zalantzan jartzera eraman du talde jeltzalea.**
- **Jeltzaleek egunero lanean jarraitzeko premia agertu dute, gure udalerriaren etorkizuna alde batera utzi gabe. Proposatzea ezinbestekoa da, baita lan egitea eta proposatutako egikaritzea ere.**

Laudion, 2017ko martxoaren 24an. Laudioko EAJ-PNV udal taldeak argi eta garbi bere haserrea agertu gura du, EH Bilduk legealdi honetan zehar agertutako eraginkortasun ezaren, ekintza faltaren eta gestio gaitasun faltaren aurrean.

Iragan urteko erdialdera, audioar talde abertzale biek adostutako aurrekontuen egikaritzearen aurrean azaldutako axolagabekeria adierazgarria da, gaur bertan: 2016 urterako guztira itundutako inbertsioen batz bestekoa ez da %29ra heltzen. Eta zehazki, EH Bildu eta udal talde jeltzalearen artean itundutako inbertsioak justu justu %6ra heltzen dira.

Eta gaurko eta etorkizuneko Audiorentzako hain garrantzitsuak diren inbertsioen artean, honako hauek aurki genitzake: Alzarrateko Antzokia; haurrentzako parkeak estaltzea; Lamuzako parkea berraktibatzea; zahar egoitza zaharra berreskuratu eta erabilera kultural eta sozialak zehaztea; eta Zubiko Etxea, udal liburutegi eta ikasketa gela gisa egokitzea, besteak beste.

Jeltzaleek dinamika aldaketa bat exijitzen dute, baita iragan 2016an adostutako inbertsioen egikaritzea azkartzea ere, 3,2 milioi euro baino zerbait gehiagoko aurrekontuarekin. Eta eskaera horren adibide garbi bat, Audioko EAJ-PNV-k lanean jarraitzeko beharraz ohartzeko gauzatutako makina bat bilera. Izan ere, EH Bilduk ezin dezake ahaztu, gutxiengoan gobernatuta, ezinbestekoak dira akordioak ixtea, baina are garrantzitsuagoa da adostutako betetzea. Audiorentzako Udalean gobernarritasuna bermatuta bakarrik berreskura dezake gure herriak merezitako tokia.

Hain da handia galdutako konfiantza, ezen, talde jeltzalea, EH Bilduren gobernu taldearekiko etorkizun baterako konpromisoa kolokan jartzen duen.

Audiorentzako etorkizun oparo baten alde lanean jarraitzeko beharraz jakitun, Audioko EAJ-PNV-k bere ibilbidean tinko segituko du. Herriarentzako eta herritarrentzako proposamenak bakarrik beharrezkoak ez dira, lana eta Audiorentzako merezi duen tokia berreskuratzeko proposamenak betetzea ere ezinbestekoak dira.